

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2012ko APIRILAREN 4an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko apirilaren 4an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Igor Barandiaran Perez de Arriluzea alkateordearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEORDEA: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola

Imanol Aranzabal Lasa

Jon Tejeria Otermin (arratsaldeko 20.00 orduetan

bertaratzen da)

Bere ezin etorria azaltzen du: Xabier Mujika Pagola, Karlos Irazu Muñoa eta Aritz Usandizaga Larrañaga


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkateorde jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - 2012ko martxoaren 1ean egindako ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. 2011ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada.**
- 4. Larraulgo Murgil Guraso Elkarteak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 5. Herri Ostatuaren Zerbitzu Publikoaren kudeaketa kontratatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza ekonomiko administratiboen plegua onestea eta lizitazioari hasiera ematea, hala bada.**
- 6. Ernio inguruan oroigarri partikularrak jartzeari buruzko adierazpenaren onespena, hala bada.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2012 urteko martxoaren 1eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

03/2012 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 19koa, Tolomendik 2012ko martxoaren 20an egingo duen Gobernu Batzordean, Larraulgo Udalaren ordezkari gisa eta botoa emateko ahalmena izango duena Adunako ordezkaria izendatzea, ebazten duena.

04/2012 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 19koa, Larraulgo hainbat herri bide konpontzeko Gipuzkoako Foru Aldundiari diru-laguntza eskaera egitea, otsailaren 28ko 6/2012 Foru Dekretuaren babesean, ebazten duena.

05/2012 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 31koa, Udal honen 2011ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

06/2012 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 30ekoa, M.C.G. andreari luzapena ematea, Sorozelai 41 eskubian egindako ezkutuko obrak legalizatzeko Udal honetan aurkeztu beharreko dokumentazioak ekartzeko, ebazten duena.


07/2012 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 3koa, Igor Barandiaran Perez de Arriluzea zinegotziari, Lehen Alkate orde bezala, 2012ko apirilaren 4an, Alkate moduan ditudan ahalmenak eskuordetzan ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira

HIRUGARREN PUNTUA

2011KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Idazkari-kontuhartzaileak 2012/05 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2011 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


2012/05 DEKRETUA

Udal honen 2011ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2011ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2011-12-31n:		36.860,71
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2011-12-31n:		8.929,34
Aurrekontuko zordunak :	1.662,16	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	7.267,18	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2011-12-31n:		64.880,16
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	25.724,20	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	39.155,96	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		-19.090,11
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		-19.090,11
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		-19.090,11
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-52.292,19
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		0,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		-52.292,19



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	0,00

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO MURGIL GURASO ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Guraso Elkarteak 2012ko martxoaren 20ean egindako bileran adostu zutela T.W. gurasoak egindako idatziari babesa ematea eta idatzi horren berri Larraulgo Udalarari ematea, ondorengo diolarik:

“ Ayuntamiento de Larraul,


Dada la circunstancia que la escuela de Larraul no dispone de un recinto escolar cerrado l@s alumn@s utilizan el espacio público para las actividades de recreo. Por un lado, utilizan las instalaciones infantiles de la plaza Urbeltz y, por otro lado, el espacio comprendido entre el ayuntamiento y la iglesia.

Al tratarse, en el primer caso, de una zona próxima y, en el segundo, de una zona directamente abierta al tráfico, se propone al ayuntamiento realizar medidas con el fin de aumentar la seguridad vial sobre todo para proteger a la población infantil.

El peligro resulta ser consecuencia del paso de vehículos a velocidades inadecuadas. La situación se agrava por la poca visibilidad que ofrecen las entradas a la plaza al/a conductor@ de un automóvil.

Para remediar se propone declarar la zona entre el parque infantil viejo, el frontón, Hezkide-eskola y la plaza zona peatonal. De esta manera, se daría preferencia al uso peatonal/recreativo y no a su mero uso como vial que es la situación actual.

Para garantizar el paso de vehículos a velocidades inadecuadas se propone la instalación de badenes (pasos elevados) u otro tipo de dispositivos que forzarían a l@s conductor@s a reducir la velocidad.”



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak, T.W. gurasoak eginiko eskaera aztertuko duela jakitera ematea, aipaturiko arazoari irtenbide bat emateko Udal Teknikariari eskaera egingo zaiolarik proposamen desberdinak aurkezteko.

BOSTGARREN PUNTUA

HERRI OSTATUAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOEN PLEGUA ONESTEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA, HALA BADA

Jon Tejeria zinegotzia une honetan bertarutzen da.

Ikusirik datorren 2012ko uztailaren 20ean, gaur egun Larraulgo herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena eramaten duenari kontratua amaitzen zaiola.

Ikusirik, Larraulgo Udalak, prestatu dituela Larraulgo Herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen plegua.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,


ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpena ematea.

BIGARRENA: Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onespina.

HIRUGARRENA: Larraulgo herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onespina, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zortzi eguneko epean, publikoan jartzea, interesatuek aztertu, eta behar bada, egoki deritzoten erreklamazioak aurkez ditzaten.

LAUGARRENA: Larraulgo Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, lehiaketa ireki bidez esleitzeko lehiaketa irekirako deialdiaren onespina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesatuek hogeitun eguneko epean euren proposamenak aurkeztu ditzaten.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

SEIGARREN PUNTUA

**ERNIO INGURUAN OROIGARRI PARTIKULARRAK JARTZEARI
BURUZKO ADIERAZPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ondorengo adierazpena aurkezten da:

“ADIERAZPENA

Bildurik Ernio inguruan gauden 8 herrietako ordezkariak eta Erniozaleak kultur elkartea mahai baten inguruan, denok arazo amankomun bat izanik, ondorengo hau

ADIERAZTEN DUGU

-Ernioko Gurutze inguruan gero eta gurutze edo oroigarri gehiago jartzen ari direla era partikularrean

-Ernioko gaina bere osotasunean herri ondare bat dela naturak horrela eskatzen duelako, eta ezin dela pertsonalizatu inongo zatirik

-Ernio mendiaren gaina denok gozatu behar dugu bere osotasunean, eta horregatik

ERABAKITZEN DUGU

-Edozein oroigarri partikular jartzea galeraztea Ernioko lurren osotasunean.

-Ernio inguruan gaur egunerarte jarri diren oroigarri eta gurutzeak, kentzeko gonbitea luzatu bere jabeei eta horrela egin dadila eskatu.

-Mendizale edo Erniozale diren guztientzat baliogarria izango litzatekeen oroigarri orokor bat jartzea, norbere sentimenduak adierazteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aipaturiko adierazpena onestea.


BIGARRENA: Albizturgo Udalari erabaki honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BERRI LANTEGIA	41,30
AITZOL	64,96



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BERRI LANTEGIA	59,80
BERRI LANTEGIA	188,39
BELARMENDI	592,95
GARAJE EGIN	391,58
FERRETERIA BARBE	56,35
KIROLZER	130,35
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.310,44
IHOBE	300,00
UROLA	241,79
IBERDROLA	207,29
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	91,17
MOVISTAR	17,70
MOVISTAR	89,74
REPSOL	341,78
REPSOL	1.076,17
EUSKALTEL	204,29

Udalbatzarrak **ah**o batez hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **7.426,52** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.15 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA